



## DEIALDIAREN AURREKO INFORMAZIOA (2024-2025 IKASTURTEA)

- **2024-2025eko bekarako deialdia uztailaren erdian** argitaratuko da EHAAn.
- **Eskabideak aurkezteko epea** argitaratu eta hurrengo egunean hasiko da, eta 2024ko irailaren 16an amaituko da, ikasle guztientzat.
- Beka hau bateraezina da Ministerioarenarekin. Euskal Autonomia Erkidegoan **2023ko abenduaren 31n errolatuta dauden ikasleek** eska dezakete, **unibertsitate-ikasketak edo beste goi-mailako ikasketa batzuk** egingo badituzte, bai Euskadin, bai Estatuko gainerako lekuetan.
- **Eskatzeko modua erabat elektronikoa da**, eta **ziurtagiri elektronikoa baliadun bat** behar da eskaera formalizatu ahal izateko. Ikasle guztiei gomendatzen diegu **BakQ lehenbailehen egitea**, eta azken unerako ez uztea. Ziurtagiri elektronikoa hori oso erraz erabiltzen da, eta ez da euskarri elektronikorik behar horretarako.

Kontuan hartu behar da NAN elektronikoa duten 18 urtetik beherakoek ezingo dutela ziurtagiri horrekin eskabidea sinatu adinez nagusi izan arte. Beraz, BakQ erabitzea gomendatzen da.

- Edozein zalantza argitzeko, mezu elektronikoa bat bidali daiteke helbide honetara: [uni.ikasketak@euskadi.eus](mailto:uni.ikasketak@euskadi.eus) edo Zuzenean zerbitzura deitu ( 012 / 945 01 80 00).

Vitoria-Gasteiz, 2024ko ekainaren 13a

**UNIBERTSITATE POLITIKA ETA KOORDINAZIOKO ZUZENDARITZA**  
**HEZKUNTZA SAILA**